Proiektuetarako jarduerak | 2. Blokea : Edukiak sortzea

Lehen Hezkuntza. 3 - 7 urte

Eskulan kolaboratiboa

Lehen Hezkuntza

3 - 7 urte

Maila

Ertaina

Denboralizazioa

4 - 6 saio

Kideak

4 - 6 kide

JARDUERAREN DESKRIPZIOA

Ikastetxeetako, ikasleek parte hartzen duten gainerako ikasleekin batera, jarduera artistiko kolaboratibo batera eramango duen elementua diseinatu, koloreztatu eta apainduko du.

JARDUERAREN XEDEA

1. Kide diren ikastetxe guztiek kolaboratzea jarduera artistiko kooperatibo baten bidez.

JARDUERAREN GARAPENA

1. Fasea: Prestatzea

1. urratsa:

Elementuaren txantiloia prestatuko da. Kasu honetan, ezkata aukeratu dugu gaia “maskotak” delako. Arrain kolaboratibo bat egingo dugu kide diren ikastetxe guztietako ikasleek emango dituzten ezkatekin. TwinSpaceko materialak eta irudiak partekatuko dira ikastetxe guztiek deskargatu ditzaten.

2. urratsa:

Ikasleek elementu hori diseinatu, koloreztatu eta apainduko dituzte eta irakasleek sortutako guztia karpeta berean partekatuko dute, hain zuzen, TwinSpaceko Materialak-Irudiak delakoan dagoen “Shared scales” karpetan.

---

2. Fasea: Praktikan jartzea

3. urratsa:

Kide diren ikastetxeetako irakasleek ikasleen ekarpen guztiak deskargatuko dituzte eta eskulan kolaboratiboa egingo da proiektuan parte hartzen duten ikasgela bakoitzeko ikasle guztien artean. TwinSpacean orrialde bat sortuko da jardueraren prozesua agertzeko.

4. urratsa:

Sorkuntza bakoitzari argazkia aterako zaio eta testuak editatuko dira bai norberaren ama-hizkuntzan bai ingelesez. Era horretan, ikasleek proiektuaren gaiari buruzko hiztegia ikasiko dute parte hartzen duten lurraldeen hizkuntzetan.

5. urratsa:

Taula digital bat irekiko da. Bertan, ikastetxe bakoitzak sortu duen irudi bana igoko du. TwinSpacean taula txertatuko da proiektuan parte hartu duten ikasle guztiek era kolaboratiboan egindako eskulanak ikusi ahal izateko.

6. urratsa:

Kide guztiek zereginaren garapena komentatuko dute proiektuaren egunerokoan.

---

3. Fasea: Datuak biltzea eta jakitera ematea

7. urratsa:

Sortutako guztia deskargatu eta kide den ikastetxe bakoitzaren txokoetan kokatuko da. Txoko horietan, egiten diren jarduera ezberdinen emaitzak agertuko dira.

PRODUKTUA(K)/AURREIKUSITAKO EMAITZA(K)

Jardueraren garapenari buruzko argazkiak eta aurkezpenak Twinspacean eta proiektuaren horma finkoan.

TWINSPACEKO TRESNAK/KANPOKO 2.0 TRESNAK

- TwinSpace jarduerari buruzko argazkiak eta bideoak partekatzeko.
- Taula edo horma digitalak: Lino it: linoit.com edo Padlet: https://padlet.com
- Vimeo edo Youtube bideoak editatu eta gordetzeko.
- Argazkien aurkezpenak egiteko, Slideshare:https://es.slideshare.net edo Photopeach: https://photopeach.com